

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gazteek izango lukete itzulpen instantaneoko entzungailuak gehien erabiliko lituzketen erabiltzaile-taldea. Arrazoia da teknologia berrietara askoz ere ohituago daudela eta gailu berriak azkar eta erraz bereganatzen dituztela. Gainera, askoz gehiago bidaiatzen dute: Erasmus ikasketengatik, aldi baterako lanengatik edo turismo merkeagatik. Interneten, bideojokoetan eta sare sozialetan ere atzerriko jendearekin harreman gehiago izaten dute, eta horrek hizkuntza desberdinetan komunikatzeko beharra handitzen du. Horregatik, entzungailu mota hau tresna natural eta erabilgarri bihurtzen zaie egunerokoan.

Bestalde, adineko pertsonak ere erabiliko lituzkete entzungailuak, baina neurri txikiagoan. Askotan zailagoa egiten zaie gailu teknologiko berriak erabiltzen ikatea eta, oro har, gutxiago bidaiatzen dute. Hala ere, erabiltzen dituztenean oso behar zehatzak izaten dituzte: beste herrialde batera lekualdatu diren adinekoak, jubilatuen talde-bidaietan edo itsas bidaian parte hartzen dutenak, edo atzerrian bizi diren seme-alaba edo bilobekin hobeto komunikatu nahi dutenak. Gainera, hizkuntza berriak ikatea kostatzen zaien adinekoentzat ere oso lagungarria izan daiteke eguneroko tramite eta egoeretan.